



AIARAKO UDALAK 2024ko MARTXOAREN 21ean EGINIKO OHIKO BILKURAKO AKTA

PRESIDENTEA

Prudencio Otegui Echevarría jn.

ZINEGOTZIAK

Karmele Población Martínez and.
Iratxe Parro Uzquiano and.
Izaskun García Aresti and.
Irantzu Apodaca Sánchez and.
Gentza Alamillo Udaeta jn.
Iñigo Pinedo Vadillo jn.
Montse Angulo Solloa and.
Unai Campo Arenaza jn.
Susana Martín Benavides and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita lauko martxoaren hogeita batean, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Prudencio Otegui Echevarría alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos and.

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- 2024ko apirilaren 21ean egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan hauteskunde-mahaiak osatzeko presidenteak eta kideak izendatzea.

2024ko apirilaren 21ean egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan hauteskunde-mahaiak osatzeko presidenteak eta kideak izendatzeko zozketa egin da.

IKUSI DA.- Ikusi da 2024ko otsailaren 27an 42 zenbakiko EHAA-n Lehendakariaren 7/2024 Dekretua, otsailaren 26koa, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deialdia egiten duena.

IKUSI DA.- Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 26. artikulua araberaz, Udalaren eskumena da hauteskunde-mahaiak eratzea, eremuko hauteskunde-batzordeak gainbegiratuta.



IKUSI DA.- Hauteskunde-batzorde zentralak aipatutako artikularen dotrina interpretatiboa ezarri duela, adieraziz zozketa Udaleko Udalbatzari bakarrik dagokiola.

AINZAT HARTU DA.- Mahai bakoitzeko presidentea eta kideak zozketa publikoaren bidez izendatzen direla, dagokion mahaiko hautesleen zerrendan dauden pertsonen artean.

IKUSI DA.- Aurreko guztia; hortaz, aipatutako zozketa egin da.

Behin zozketa amaituta, Udalbatzak, bertaratutako kideek aho batez adostuta, honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Honako hauek presidente eta kide (titularrak eta ordezkokoak) izendatzea:

– **BARRUTIA: 01 ATALA: 001 MAHAIA: A**

PRESIDENTEA:
LEHENENGO KIDEA:
BIGARREN KIDEA:

REBECA HUELMO ITURRIBARRIA
MARIA AZUCENA ALEMANY PLAZA
JOSEBA IBARROLA MENOYO

PRESIDENTEAREN LEHENENGO ORDEZKOA:
PRESIDENTEAREN BIGARREN ORDEZKOA:
1. KIDEAREN LEHENENGO ORDEZKOA:
1. KIDEAREN BIGARREN ORDEZKOA:
2. KIDEAREN LEHENENGO ORDEZKOA:
2. KIDEAREN BIGARREN ORDEZKOA:

LUIS SILVINO GARCIA ANDRADE
RAQUEL BALAGUER ORTIZ
RAUL FUENTES MONTAOS
MARIA CARMEN ARBAIZA SAUTU
GUSTAVO ANGULO OYARZABAL
MIRIAM GONZALEZ CUADRA

– **BARRUTIA: 01 ATALA: 001 MAHAIA: B**

PRESIDENTEA:
LEHENENGO KIDEA:
BIGARREN KIDEA:

MIKEL MENDIA ITURRIBARRIA
JON ANDER LARRAZABAL LECANDA
MARIA DEL MAR MALUENDA MIÑANA

PRESIDENTEAREN LEHENENGO ORDEZKOA:
PRESIDENTEAREN BIGARREN ORDEZKOA:
1. KIDEAREN LEHENENGO ORDEZKOA:
1. KIDEAREN BIGARREN ORDEZKOA:
2. KIDEAREN LEHENENGO ORDEZKOA:
2. KIDEAREN BIGARREN ORDEZKOA:

RAQUEL VILLANUEVA MURGA
JOSE ANGEL URQUIJO ABASOLO
CARMELO SERRANO MARTINEZ
ROBERTO ZURIMENDI MARCUARTU
IRANZTU MENOYO LARRAZABAL
LUIS MARIA MORILLO MARTIN



– **BARRUTIA: 01 ATALA: 001 MAHAIA: C**

PRESIDENTEA:	SEGUNDO MAIZA MARTINEZ DE ARMAÑANZAS
LEHENENGO KIDEA:	JAGOBA VILLANUEVA LUACES
BIGARREN KIDEA:	SANTIAGO URQUIJO ZUBIAGA
PRESIDENTEAREN LEHENENGO ORDEZKOA:	JOSEBA GANZEDO PADURA
PRESIDENTEAREN BIGARREN ORDEZKOA:	MARIA EUGENIA MORILLO MARTIN
1. KIDEAREN LEHENENGO ORDEZKOA:	ALBERTO CANIBE VILLAMOR
1. KIDEAREN BIGARREN ORDEZKOA:	MARGARITA GORBEA CASTRESANA
2. KIDEAREN LEHENENGO ORDEZKOA:	MARIA CARMEN LEON MONCADA
2. KIDEAREN BIGARREN ORDEZKOA:	ANA ISABEL CANDAS GONZALEZ

– **BARRUTIA: 01 ATALA: 002 MAHAIA: A**

PRESIDENTEA:	MARIA ISABEL HERNANDEZ MORAL
LEHENENGO KIDEA:	DANIEL GOLPE SANCHEZ
BIGARREN KIDEA:	F. JAVIER GORDON FANARRAGA
PRESIDENTEAREN LEHENENGO ORDEZKOA:	JOSE MARIA FONTAN MIRANDA
PRESIDENTEAREN BIGARREN ORDEZKOA:	AGURTZANE DIEGO VAQUERO
1. KIDEAREN LEHENENGO ORDEZKOA:	JUAN CARLOS ARREGUI BALBOA
1. KIDEAREN BIGARREN ORDEZKOA:	FRANCISCA HARILLO GARCIA
2. KIDEAREN LEHENENGO ORDEZKOA:	MIREN ARRAZURIA ORTIZ DE BARRON
2. KIDEAREN BIGARREN ORDEZKOA:	IRUNE DIAZ HERNANDEZ

– **BARRUTIA: 01 ATALA: 002 MAHAIA: B**

PRESIDENTEA:	JOSE ANTONIO PEDREIRA FERREÑO
LEHENENGO KIDEA:	LOURDES PARA DOCAMPO
BIGARREN KIDEA:	FRANCIS ALEXANDER VASQUEZ RAMIREZ
PRESIDENTEAREN LEHENENGO ORDEZKOA:	URTZI MARCUARTU ARRAZURIA
PRESIDENTEAREN BIGARREN ORDEZKOA:	JUAN CARLOS ORTEGA BARROSO
1. KIDEAREN LEHENENGO ORDEZKOA:	NAIARA MONTALBAN MAGRACH
1. KIDEAREN BIGARREN ORDEZKOA:	MARIA JOSE OLABARRIA MICOLTA
2. KIDEAREN LEHENENGO ORDEZKOA:	JOSE ANTONIO SANTO TOMAS MURCIEGO
2. KIDEAREN BIGARREN ORDEZKOA:	JOSE MIGUEL RODRIGO SANCHO

BIGARRENA.- Interesdunei izendapena jakinaraztea. Jakinarazpenarekin batera, mahaietako kideei beren funtzioei buruzko jarraibide-gidaliburua bidaliko zaie, hauteskunde-batzorde zentralak gainbegiratuta.



2.- Iñigo Fraile Almanchel jaunak Aiarako Udaleko zinegotzi aktari uko egin izanaren berri jasotzea.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta adierazi du oso gustura aritu direla lanean, eta egindako lana eta batzordeetan erakutsitako jarrera eskertu diote, ekarpenak beti oso ondo onartzen zituelako.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) hartu du hitza eta esan du bere taldeak Iñigok egindako lana aintzat hartzen duela; laguntza eskertu dio eta dena oso ongi joan dakion opa dio.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza adierazteko bere taldeak pertsonalki helarazi dizkiola eskerrak.

Ez da horri buruzko iruzkin gehiagorik egin, eta

IKUSI DA.- Iñigo Fraile Almanchel jaunak 2024ko martxoaren 13an aurkeztutako idazkia. Horren bidez, EUSKAL HERRIA BILDU udal-taldean Aiarako Udaleko zinegotzi karguari uko egin nahi diola jakinarazi zion Udalari.

IKUSI DA.- Hauteskunde-batzorde zentralaren 2003ko uztailaren 10eko Instrukzioak, toki-ordezkarien karguak ordezkatzeari buruzkoak, honela dio 1.1 artikuluan:

“Uko egiteko idazkia aurkezten denean, edo zinegotziaren, auzo-alkatearen, eskualdeko kontseilariaren edo tokiko beste ordezkaritza-kargu baten heriotza edo kargua galtzea dakarren beste gertakariaren bat gertatuz gero, parte hartzen duen toki-erakundeko Udalbatzak horren berri izango du, hartutako erabakiaren ziurtagiria eremuko hauteskunde-batzordeari bidaliz, agintaldian zehar, toki-hauteskundeei begira, eta hauteskunde-batzorde zentralari bidaliko zaio, haren agintaldia amaitu ondoren, ordezkapena egiteko, Hauteskundeen Araubide Orokorren buruzko Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, eta Udalbatzaren iritziz plaza hutsa bete behar duen pertsonaren izena adierazita”.

AINZAT HARTU DA.- Hauteskunde Arautegi Orokorren martxoaren 10eko 1/2003 Lege Organikoaren 182.2 artikuluan ezarritakoa.

Aurreko guztiarekin bat etorriz, Udalbatzak, bertaratutako zinegotziek aho batez adostuta, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Iñigo Fraile Almanchel jaunak Aiarako Udaleko zinegotzi gisa duen karguaren uko egitea onestea.

Bigarrena.- Erabaki honen berri ematea Hauteskunde-batzorde Zentralari eta eskatzea 2023ko udal-hauteskundeetan Aiarako EUSKAL HERRIA BILDU talde politikoaren zerrendan ondoren dagoena izendatzea eta bere aldeko egiaztatutuna bidal dezala; hautagai-zerrenden hurrengo pertsona MARIAN MENDIGUREN MENDIBIL andrea da.



3.- Udalbatzaren erabaki-proposamena, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin 2023 ekitaldirako udal-langileen eta alkatearen ordainsariak 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko % 0,5 igotzeko.

Udalbatzari puntu honi dagokion 2024ko martxoaren 12ko Ingurumena, Mugikortasuna, Funtzio Publikoa eta Soziosanitarioa Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) hartu du hitza 2023. urtearekiko igoera horri uko egiten diola adierazteko.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek).

Hori dela bide, eta

AINTZAT HARTU DA.- 2022ko abenduaren 24an, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean. Horren 19. Bi. 2. b) artikuluan Sektore publikoko langileen ordainsariak ehuneko 0,5 igotzea aurreikusten zen, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) bilakaera nominalari lotuta, ehuneko 2,5eko igoera finkoaren eta ehuneko 0,5eko igoera gehigarriaren osagarri gisa, eta iraileko Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) aurreratua bilakaerari lotuta.

AINTZAT HARTU DA.- Ministro Kontseiluaren 2024ko otsailaren 6ko Erabakia. Horren bidez, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi. 2. b) artikuluan aurreikusitako sektore publikoko langileen ordainsarien igoera onesten da.

IKUSI DA.- Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren 2024ko otsailaren 7ko Ebazpena. Horren bidez, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi. 2. b) artikuluan aurreikusitako sektore publikoko langileei BPGd-ren bilakaerari lotutako ordainsarien ehuneko 0,5eko igoera osagarria ordaintzeari buruzko jarraibideak ematen dira.

IKUSI DA.- Ordainsarien ehuneko 0,5eko igoera osagarriari buruzko zirkularra, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, EUDELeK 2024ko otsailaren 8an bidalia.

IKUSI DA.- Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariaren otsailaren 23ko 25/2024 Ebazpena. Horren bidez, 2023rako Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langileen ordainsarien % 0,5eko igoera osagarria onesten duen erabakia argitaratzen da.

Aurreko guztiarekin bat etorriz, Udalbatzak, bertaratutako zinegotziek aho batez adostuta, honako hau **ERABAKI DU:**



LEHENENGOA.- 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2023 ekitaldirako udal-langileen eta alkatearen ordainsariak 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko % 0,5 igotzea.

BIGARRENA.- Era berean, Alkatetzaren ordainsariak igotzea 2023 ekitaldirako, ehuneko horietan, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, Prudencio Otegui Echevarría jaunak 2023ko urritik sortutako ordainsariak izan ezik.

HIRUGARRENA.- Martxoko nominan adierazitako eta jaso gabeko igoerak aplikatzearen ondoriozko atzerakinak ordaintzea.

LAUGARRENA.- Erabakiaren berri ematea Sindikatuei, Kontu-hartzaitzari eta Udaleko Diruzaintzari.

BOSGARRENA.- Hartutako erabakiaren laburpena Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.- EH-Bildu talde politikoak aurkeztutako Aiaraldeko Plan Estrategikoa behin betiko osatzeko mozioa.

Udalbatzari puntu honi dagokion 2024ko martxoaren 12ko Ingurumena, Mugikortasuna, Funtzio Publikoa eta Soziosanitarioa Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz aurkeztutako mozioa azaldu du, eta azaldu du ez dela inoren aurka joateko mozio bat; Plan Estrategikoa zirriborro izatetik behin betiko dokumentu izatea baino ez dela eskatzen, lehenbailehen indarrean sar dadin.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta adierazi du informazio-batzordean esan zutela aurka bozkatuko zutela, eta arrazoiak azaldu zituztela. Gaineratu duenez, Karmele andreak adierazi du ekintzak abian jarri nahi direla, eta baieztapen horrek harritu egiten du, taldeko Batzar Nagusietan EH BILDUren galdera bat dagoelako. Bertan, Aiaraldean BAPren gauzatze-maila xehatzen da, eta Batzarretan egindako azalpen horretan, ardatzetik ardatzera gauzatze-maila zehazten zen: lurzoru industrial, turistiko eta komertzialen berreskurapenaren deskribapena egin zen; Audio Ekintza eta Kultur Guneaz, enpleguaz eta prestakuntza-proiektuaz hitz egin zen; 6. puntuan Aldundiak Laudion gaituko duen adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroaz hitz egin zen; ingurumenari dagokionez parke linealaren proiektuaz eta bide berdeak handitzeaz hitz egin zen, eta horietako batek Aiarako udalerritari eragiten dio; etab. Horregatik, hain generikoa den zerbaiti buruz hitz egitea bidegabera iruditzen zaie, ez baita hitz egiten Planak dituen ardatzen gauzatze-mailari buruz, eta hori Aiarako eskualde osoko eta Urduña, Orozko eta Arrankudiaga udalerrietako elkarte, kolektibo eta erakundeekin landu zen. Horregatik guztiagatik, bere botoa aurkakoa izango da, are gehiago orain Plana egikaritzeko eskatzen ari direnean, eta ziur asko, Udalak luzapena eskatuko du ardatz horietako baten laguntza-lerro bati eskatu zaizkion ekintzak gauzatzeko.



Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz aipatu du gauza bat dela BAPa eta plan horretan gauza batzuk garatu direla eta beste batzuk ez, hala nola parke linealeko jarduketak, oso gutxi egin baitira, eta oso gutxi egin da lurren erosketari dagokionez, etab. Aiaraldeari dagokionez, iaz diru-kopuru bat galdu zen Luiaondotik Arespalditzarako bidearen proiektu baterako, berandu jakin zutelako laguntza-ildo hori existitzen zela, eta horrekin jarri zirenean abendua zen eta ez zuen denborarik ematen txostenak lortzeko, eta badirudi diru hori agian 2024an lor zitekeela, baina ez dakigu. Horregatik, Aiaraldeko Plan Estrategikoa behin betiko onartzea eta BAPa gauzatzeko neurriak hartzea eskatzen da.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 5 (2 EH BILDU + 3 AIARA BATUZ).
AURKAKOAK: 5 EAJ-PNV

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- EH BILDUK aurkeztutako Aiaraldeko Plan Estrategikoa behin betiko osatzeko mozioa.

IKUSI DA.- 2024ko martxoaren 12ko Ingurumena, Mugikortasuna, Funtzio Publikoa eta Soziosanitarioa Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

Aurreko guztiarekin bat etorritz, Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko 5 botorekin (EH-Bildu eta Aiara Batuz (alkatearen kalitatezko botoa) eta aurkako 5 botorekin (EAJ-PNV), honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- EH BILDUK aurkeztutako mozioa onestea, Aiaraldeko Plan Estrategikoa behin betiko osatzeko; honako hau dio, hitzez hitz:

ehbildu

AIARALDEAKO PLAN ESTRATEGIKOA
BEHINGOZ OSATZEKO MOZIOA

MOZIOA:

2018-ko abenduan EH Bilduk Legebiltzarrean Aiaraldea berpizteko Ponentzia sortzea proposatu zuen eta, 2019ko azaroan Ponentzia abiatu ondoren, 2021eko azaroan ondorioen txostena aurkeztu zen.

Ponentziaren ondorioei aurre egiteko

ehbildu

MOCIÓN PARA LA ELABORACIÓN
DEFINITIVA DEL PLAN ESTRATÉGICO
DE AIARALDEA

MOTIVO:

En diciembre de 2018 EH Bildu propuso en el Parlamento vasco la creación de una Ponencia para reactivar Aiaraldea y, tras la puesta en marcha de la Ponencia en noviembre de 2019, en noviembre de 2021 se presentó el informe de conclusiones.

Se aprobó el Plan de Actuación

I.F.K. C.I.F. P0101100F



Berehala Jarduteko Plana onartu zen, zeinean epe laburrean gauzatzeko 33 ekintza biltzen diren. Epe ertain-luzerako Aiaraldeako Plan Estrategikoa aurkeztu behar zen 2022ko irailean.

2023ko otsailaren 20an, eskualdeko Plan Estrategikoaren hasierako zirriborroa aurkeztu zitzaizen Aiaraldeako alkateei.

Aurkezpenetik urtebetera, eta berririk jaso gabe, 2024ko otsailaren 5ean, EH Bilduko batzarkide taldearen ekimenez, Arabako Arlo Estrategikoen zuzendariak adierazi zuen 2023an aurkeztutako zirriborroa ez zela asko moldatuko.

Egoera honen jabe, mozio hau aurkezten du Aiarako EH Bilduko Udal Taldeak, osoko bilkurak eztabaidatu eta onartu dezan:

1. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die Eskualdeko Plan Estrategikorako Talde Eragilea deitu dadin bertan Plan Estrategikoa behingoz adostu eta onartzeko, aurretik beharrezko informazioa helarazita.

2. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die Aiaraldeako udal eta agenteen ekarpenak kontuan har ditzatela behin betiko Eskualdeko Plan Estrategikoa osatzeko.

3. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die Berehala Jarduteko Plana epe laburrean gauzatzeko beharrezko neurriak har dezaten, planaren 33 ekintzen helburuak betez.

Inmediata para hacer frente a las conclusiones de la ponencia, en el que se recogen 33 acciones a ejecutar a corto plazo. En septiembre de 2022 se iba a presentar el Plan Estratégico de Aiaraldea, un plan a medio-largo plazo.

El 20 de febrero de 2023 se presentó a los alcaldes de Aiaraldea el borrador inicial del Plan Estratégico Comarcal.

Un año después de su presentación, y sin recibir noticias, el 5 de febrero de 2024, a iniciativa del grupo juntero de EH Bildu, el director de Áreas Estratégicas de Álava señaló que el borrador presentado en 2023 no variaría mucho.

Ante esta situación, el Grupo Municipal de EH Bildu de Ayala presenta la siguiente moción para su debate y aprobación por el Pleno:

1. El Ayuntamiento de Ayala insta a la Diputación Foral de Álava y al Gobierno Vasco a convocar el Grupo motor para el Plan Estratégico Comarcal en el que se acuerde y apruebe de una vez por todas el Plan Estratégico de Aiaraldea, previa transmisión de la información necesaria.

2. El Ayuntamiento de Ayala insta a la Diputación Foral de Álava y al Gobierno Vasco a que tengan en cuenta las aportaciones de los ayuntamientos y agentes de Aiaraldea para la elaboración definitiva del Plan Estratégico Comarcal.

3. El Ayuntamiento de Ayala insta a la Diputación Foral de Álava y al Gobierno Vasco a que adopten las medidas necesarias para la ejecución a corto plazo del Plan de Actuación Inmediata, cumpliendo con los objetivos de las 33 acciones del plan.



4. Mozio hau Arabako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Batzar Nagusietako eta Eusko Legebiltzarreko talde politikoei helaraztea.

4. Dar traslado de esta moción a la Diputación Foral de Álava, al Gobierno Vasco y a los grupos políticos de las Juntas Generales de Álava y del Parlamento Vasco.

5.- 2023. urteko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.

Ez da inolako iruzkinik egin, beraz:

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio 2024ko otsailaren 14ko 2024/84 Dekretuaren bidez, 2023 ekitaldiko Udalbatza honen aurrekontuaren likidazioa onetsi zela. Honela dio Dekretuak:

“ALKATETZAREN DEKRETUA

2023 ekitaldiari dagokion Erakunde honen Aurrekontuaren Likidazioa osatzen duten dokumentuak aztertu dira, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 47. artikuluan aurreikusitakoarekin bat; eta organo kontu-hartzaileak aipaturiko Foru Arauaren 49.3. artikuluekin bat, egindako txostena ikusi da.

Alkate-udalburu honek hau **EBATZI DU**:

Lehenengoa. - 2023 ekitaldiko Udalbatza honen Aurrekontuaren likidazioa onestea. Honako hau da laburpena:

2023 EKITALDIKO AURREKONTU-ZERRENDA	Euroak
(+) Ordainduko eskubide garbiak	2.957.679,33
(-) Onartutako betebeharrak	2.693.479,59
(=) AURREKONTU ARRUNT GORDINAREN EMAITZA	264.199,74
(+) Finantza-gastuak diruzaintza soberakinarekin	277.797,97
(-) Gehiegizko finantzaketaren batura 23	326.592,87
(+) Finantzaketa-eskasien batura 23	247,00
(+) Gehiegizko finantzaketaren batura 22	334.366,94
(-) Finantzaketa-eskasien batura 22	0,00
(=) DOITUTAKO AURREKONTU ARRUNTAREN EMAITZA	550.018,78



Era berean, itxitako aurrekontuen aurrekontu-zerrendaren balioespina honelako da:

(+) Ordaindu gabeko betebeharrak ezeztatuak	7.892,00
(-) Kobratu gabeko eskubide ezeztatuak	2.344,21
(=) AURREKONTU ITXIEN EMAITZA	5.547,79

Azkenean, ekitaldiaren aurrekontu-zerrenda bi horien baturaren bidez lortzen da:

	<i>Euroak</i>
(+) DOITUTAKO AURREKONTU ARRUNTAREN EMAITZA.....	550.018,78
(+) AURREKONTU ITXIEN EMAITZA	5.547,79
(=) 2023 EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA.....	555.566,57

Bestalde, diruzaintza-gerakina dugu, ekitaldian zehar aurrekontuen likidazioa egitearen ondorioz finantzaketa-ahalmen edo -beharra adierazten duen kudeaketa-aldagaia da. Honako formula honen bidez kalkulatzen da:

(+) Diruzaintzan eskudirutan dauden izakinak	1.563.486,45
Kobratzeke dauden eskubideak guztira	942.969,10
(+) Aurrekontu arruntetik kobratzeke dauden eskubideak	254.243,63
(+) Aurrekontu itxietatik kobratzeke dauden eskubideak	688.389,03
(+) Aurrekontuz kanpo kobratzeke dauden eskubideak	470,39
(-) Behin betiko aplikazioa falta zaien egindako kobrantzak	133,95
Ordaintzeke dauden betebeharrak guztira	531.157,18
(-) Aurrekontu arruntetik kobratzeke dauden betebeharrak	247.715,21
(-) Aurrekontu itxietatik kobratzeke dauden betebeharrak	16.595,26
(-) Aurrekontuz kanpo ordaintzeke dauden betebeharrak	266.846,71
(=) DIRUZAINZTA-GERAKIN GORDINA	1.975.298,37
(-) Kobrantza zaila edo zalantzazkoa dute eskubideak	460.803,38
(=) DIRUZAINZTA-GERAKIN LIKIDOA	1.514.494,99
(-) FINANTZAKETA LOTUKO GASTUETARAKO DIRUZAINZTA-GERAKINA	326.592,87
(=) GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA-GERAKINA	1.187.902,12



Bigarrena. - Udalbatzari jakinaraztea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2022 Erabakiaren bidez Arabako Lurralde Historikoen toki-entitateen arau fiskalak atzeratzeko luzapena onetsi zela, ohiz kanpoko izaerarekin eta 2023rako bakarrik. Horrek berekin dakar egonkortasun eta zor publikoko helburuak indargabe geratu direla eta ez zaiela gastuen araua aplikatu behar 2023. urtean. Hala ere, jakinarazteko eta orientatzeko bakarrik, 2021 ekitaldiaren egonkortasun eta gastuen arauaren kalkulua egin da, eta ondorioztatu da, arau fiskal horiek aplikatzekotan, Aiarako Udalak egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko legerian ezarritako egonkortasun eta gastuen araua beteko luke.

Hirugarrena. - Onetsitako likidazioaren kopia bat bidaltzea Arabako Foru Aldundiari eta Ogasun eta Ekonomia Ministerioari, hilabeteko epean.

ALKATE-UDALBURUA,
Stua.: Prudencio Otegui Echevarría.

Nire aurrean, IDAZKARIA,
Stua.: Naiara Lazpita Marcos.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.

6.- Alkatetzaren Dekretuen berri ematea.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2024/81 eta 2024/140 bitarteko Alkatetzaren Dekretuak, bi horiek barne. Horien edukia, laburki, honako hau da:

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/81. - Aiarako 2024ko Jaietarako karpa alokatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/82.- Solfy Renewables SL e/r I.A.O.- Arespalditzan instalazio fotovoltaikoaren alde aurreko jakinarazpenaren berri jasotzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/83.- Otis Mobility – Kontratua adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/84.- 2023ko aurrekontuaren likidazioa onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/85.- Euleuk. Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa errekeritzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/86.- Aiarateam. Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa errekeritzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/87.- Babio guraso-elkartea. Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa errekeritzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/88.- Arabako Foru Aldundiari dirulaguntza eskatzea, 2023ko San Isidro abere-azoka antolatzeako gastuak ordaintzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/89 - A.A. TMIZ hobaria ematea, familia ugariaren titulua egiaztatzeagatik.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/90.- Promotoras Valle de Ayala SL.- Zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/91.- JA.V.A.- Salmantongo etxebizitzako estalkia birgaitzeko obra-amaierako lizentzia ematea eta obra-hondakinak behar bezala kudeatzeko aurkeztutako fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/92.- I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU.- Arespalditzan Inarza eraldaketa-zentroa ordezkatzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/93.- MM.U.V.- Salmantongo txokoaren estalkia teilaberritzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/94.- M.L.- Luiaondoko etxebizitzan leihoak ordezteko udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/95.- F.A.O.- Etxegoiengo Administrazio Batzarrari hirigintza-lehengoratzeko espedientea hasteko aurkeztutako eskaera ukatzea, ur-hornidurako sarea aldatzeko obrarako emandako obra-lizentzian ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/96.- Espedientea onestea, kreditu-gerakina sartzeari buruzkoa, 1/2024 zenbakia.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/97.- Aiarako Kuadrilla. 2023ko lurralde-planak likidatzeko ekarpen ekonomikoa (COLVUS)

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/98.- MI.C.T.- Beotegin etxebizitza lehenengoz okupatzeko udal-lizentzia ematea eta obra-hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzeko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/99.- Eginka Construcciones y Reformas SL.- Etxaurren Ikastolan arotzeria eta atea ordezteko obraren 1. ziurtagiria onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/100.- Elkarkidetza Pentsioak. 2024ko otsaileko faktura-likidazioa onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/101 - Idazkari kontu-hartzailearen lanpostua betetzea aldi baterako ezintasunagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/102.- ED.M.L.- Udal-lizentzia ematea Olabezarreko etxebizitzaren inguruan zolata eraikitzeke obrak egiteko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/103.- I.C.DLT.- Beotegiko labea zaharberritzeko obra-hondakinak behar bezala kudeatzeko bermerako utzitako fidantza itzultzeko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/104.- T.M.R.- Luiaondoko La Torre kaleko 23. zenbakiko A helbidean etxebizitzan arkupea eraikitzeke obretarako udal-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatu zitzaion.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/105.- FJ.G.Y E/R JI.G.P.- Lantenoko eraikinaren estalkian instalazio fotovoltaikoa jartzeko alde aurreko jakinarazpenaren berri jasotzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/106.- Etxaurren Ikastolako guraso-elkartea. 2022/23 ikasturteko lankidetzeta-hitzarmenerako dirulaguntza.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/107.- MC. J.A.- 2024/63 Dekretuaren jakinarazpena, Luiaondoko La Torre kaleko 23. zenbakian dagoen etxebizitzari atxikitako eraikuntzako lehen solairuaren hirigintza-lehengoratzeari hasiera ematen diona eta antolamenduz kanpokotzat jotzen duena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/108.- Udalerriko talde politikoei ekarpen ekonomikoa egitea, 2024ko otsaila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/109.- 2024ko otsaileko nominen ordainketa likidoa onestea, langileak eta alkatea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/110.- EEPko langileen kontratazioko 2024ko otsaileko ordainsariak ordaintzea, 2023/24.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/111.- Gizonen eta emakumeen berdintasunerako jardueren deialdirako dirulaguntza eskatzea, Arabako Foru Aldundia, 2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/112.- Fakturen kontabilitate-zerrenda onestea, F/2024/1.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/113.- Alkatetzaren 2023/63 Dekretua ofizioz berrikustea, Jaime Lastagaray Rosalesi udalaren obra-lizentzia emateari buruzkoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/114.- Udalkideei ekarpen ekonomikoa egitea, 2024ko otsaila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/115.- Urratsa Elkartea – 2024ko San Prudentzio jaietako euskal musika tradizionalaren kontratua adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/116.- 2024ko San Prudentzio jaietarako Akerbeltz + DJ Markelin kontratu pribatua adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/117.- 2024ko San Prudentzio jaietarako Kaos Etiliko kontratu pribatua adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/118.- Alkateak kreditu gehigarriaren espedientea onestea, 2/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/119.- AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA – Bigarren luzapena

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/120.- MC.A.E.- Luiaondon dagoen etxebizitzako lehen solairua gaitzeko obrak egiteko udal-lizentziaren eskaera izapidetzeko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/121.- I.M.M.- Luiaondoko eraikuntzako lehen solairua erabiltzeagatik hirigintza-ordena lehengoratzeko espedientea hastean alegazioak aurkezteko epea luzatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/122.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra.- Langileen, alkatearen eta enpresaren kotizazioa ordaintzea, 2024ko urtarrila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/123.- ME.M.M.- Menagaraiko etxebizitza eta trastelekua antolamendutik kanpo deklaratzeko, hirigintza-lehengoratzeko espedientea hastea eta Amurrioko Jabetza Erregistroari jakinaraztea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/124.- D.A.P.- Luiaondoko etxebizitza birgaitzeko udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatu zitzaion.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/125.- I.A.V.- Salmantonen turismo-ostatuko burbuilak instalatzeko obra-hondakinak behar bezala kudeatzeko berme gisa aurkeztutako fidantza itzultzeko eta jarduera garatzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/126.- P.G.O.- Informazio publikorako sarbidea eta Izoriako saneamendu-proiektuari buruzko udal-artxiboko dokumentazioa kontsultatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/127.- I.Z.E.- Informazio publikorako sarbidea eta Luiaondoko La Torre kaleko merkataritza-lokalaren lizentziari buruzko udal-artxiboko dokumentazioa kontsultatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/128.- Administrazio-batzarrari dirulaguntza ordaintzeko eta gutxitzeko agindua, 2023ko obrak egiteko gastuengatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/129.- Administrazio-batzarrari dirulaguntza ordaintzeko eta gutxitzeko agindua, 2023an ordainsari teknikoetan egindako gastuengatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/130.- Aiara Valley SL.- Dokumentazio gehigarria eskatzea Menagarain baserria eraberritzeko obraren azken lizentzia emateko. -

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/131.- Kreditu gehigarriaren espedientea onestea, alkatea, 3/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/132 - Etxaurren Ikastolari B gasolioa hornitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/133 - Araudi SLP - Alegazioak idazteko zerbitzuko kontratu txikia adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/134 - Eginka Construcciones y Reformas - 2. ziurtagiria onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/135 - Aranzadi - Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa errekeritzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/136 - Kontratazio-espedientea eta baldintza-agiriak onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/137.- L.G.F.- Aparkatzeko txartela berritzea, narriaduragatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/138.- Etxaurren Ikastolako guraso-elkartea.- Talde psikopedagogikoaren eta bi urtekoen gelako laguntzailearen nominak ordaintzea, 2024ko otsaila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/139.- Alday Fundazioa. Eguneko Arretarako Landa Zentroetako kudeaketa-gastuetarako dirulaguntza ordaintzea, 2024ko otsaila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/140.- D.M.C.- Erbin nekazaritza-pabiloia eraikitzeke eskatutako udalaren obra-lizentzia ukatzea.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza, eta galdetu du zergatik dauden hainbeste dekretu antolamenduz kanpoko obrak izendatzeko eta hirigintza-ordena lehengoratzeko espedienteak irekitzeko.



Idazkari andreak hartu du hitza, eta esan du denbora batetik hona Jabetza Erregistroaren txosten-eskaera asko iritsi direla, eta horietako batzuk oso atzeratuta daudela, interesdunek inskribatu nahi dituzten obrei dagokienez, baina dagokien obra-lizentzia aurkeztu gabe. Kasu horietan, Jabetza Erregistroak errekerimendu bat bidaltzen dio Udalari, higiezinaren hirigintza-egoerari buruzko informazioa eman dezan, eta, kasu askotan, jakinarazten da obra eraiki zenetik igaro den denbora dela-eta antolamendutik kanpo dagoela, baina, beste kasu batzuetan, lehenboratzeko hirigintza-espeditatea ireki behar dela. Garrantzitsua da txosten horiek bidaltzea; izan ere, haietan ondorioztatzen dena, erregistroan bazterreko ohar gisa txertatzen da, etorkizuneko eskuratzailleek horren berri izan dezaten.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Jarraian, alkate jaunak Udalbatzari jakinaraziko dio, presazko arrazoiak direla medio, Udalbatzaren Osoko Bilkurari proposamen bat aurkeztu zaiola diruzaintza-gerakinaren kargura kreditu-aldaketa bat onesteko, Aiarako Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko Alday Fundazioari emandako dirulaguntzari dagozkion gastuak ordaintzeko zenbatekoa gaitzeko, ezin izan baitzen bete 2023an, ez zegoelako partida nahikorik; deialdiarekin batera aurkeztutako gai-zerrendan ez dagoena, Toki Erakundearen, Antolaketaaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Alday Fundazioari emandako dirulaguntzari gastu horiek lehenbailehen ordaindu ahal izateko.

Prudencio Otegui Echevarria alkate jaunak (EH BILDU) gaia gai-zerrendan sartzeko premia justifikatu du, aurreko iruzkinetan emandako arrazoiengatik.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta adierazi du bere botoa aldekoa izango dela, baina gogorarazi du diru-kopuru hori sar zitekeen aurreko hiru aurrekontu-aldaketa egon direla, eta martxoaren amaieran Alday Fundazioak azaroan eta abenduan aurreratu dituen gastuak onartzen ari direla.

Ez da iruzkinik egin, eta Udalbatzak, lehenik eta behin, gaia eztabaidatzea bidezkoa ote de erabaki du, eta aho batez erabaki du osoko bilkura honetan eztabaidatzea. Horrenbestez, honako puntu hau sartu da:

7.- Erabaki-proposamena, bidezkoa bada, 2/2024 osoko bilkurako kreditu gehigarriaren espeditatea onesteko, 2024an Alday Fundazioari 2023ko dirulaguntza izenduna gainditzen zuen zenbatekoa ordaintzeko, 2023an onetsitako dirulaguntza izendunean baino gastu gehiago izateagatik.

Idazkari andreak hartu du hitza, eta jakinarazi du hura ordeztzen aritu den idazkariak emandako eragozpen-txosten bat dagoela, aurreko ekitaldian egin zen ildo beretik, guztiz ados dagoela horrekin.



